



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2019/2020 denboraldia

12 ZK.DUN ZIRKULARRA

GAZTEEN EUSKAL LIGA

Euskadiko Futbol Federakundeak Euskal Gazte Liga lehiaketa antolatuko du 2019/20 denboraldian, ondorengoei jarraiki:

1. Parte hartuko duten klubak

Antiguoko K.E. "C", Añorga K.K.E., Ariznabarra C.D., Arrupe Chaminade C.D., Astrabuduako F.T., Basconia C.D., Betoño C.D., Danok Bat Club "C"; Deportivo Alavés "B", Eibar S.D. "B"; Galdakao C.D., Indartsu Club, Laudio San Rokezar C.D., Leioa S.D., Oiartzun K.E., Olarizu C.D., Santutxu F.C. "B" eta Zarautz K.E.

2. Lehiaketa sistema

Multzo bakarrean, puntuetara eta itzuli bitan (hogeita hamalau jardunalditan, guztira) egingo da lehiaketa, eta Euskadiko Futbol Federakundearen Araudi Orokorreko xedapenak aplikatuko dira.

3. Partiden data eta ordutegiak

Lehen itzulia: irailaren 15, 22 eta 29; urriaren 6, 13, 20 eta 27; azaroaren 3, 10, 17 eta 24; abenduaren 1, 8, 15 eta 22; urtarrilaren 12 eta 19.

Bigarren itzulia: urtarrilaren 26; otsailaren 2, 9, 16 eta 23; martxoaren 1, 8, 15, 22 eta 29; apirilaren 5, 19 eta 26; maiatzaren 3, 10, 17 eta 24.

Partidak larunbat arratsaldera aurreratu ahalko dituzte klub antolatzaileek, 15,30etik aurrera, aurkariaren oniritzia izan gabe ere.

Esan ere ordutegi lerro bat jarri dela, beraz partidak 10,30etatik-13,00etara eta 15,30etatik-18,30etarako bitartean hasiko dira, logikoki lehiatzen duten klubaren arteko akordioa izan ezik.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 2 -

4. Sailkapen ondorioak

Sailkapeneko 1, 2 eta 3. amaitzen dutenak Gazteen Estatuko Ligara igoko dira. Halaber, Gazteen Ohorezko Mailatik federazio honetako talderik jaitsiz gero, sortzen diren hutsuneak betetzeko, sailkapeneko hurrengo lekuetan dauden taldeak ere igoko dira maila horretara.

Sailkapenean 15, 16, 17 eta 18. amaituriko taldeak beren lurraldeko ligara jaitsiko dira. Halaber, Gazteen Ohorezko Mailatik federazio honetako talderik jaitsiz gero, azken sailkapenean postu horien aurretxoan egondako taldeek, behar bestek, maila galduko dute. Egoera honek aipatutako mailan klubuen gehiegizkoa suposatzen duenean.

Orobat, lurralde ligetan lehenengo postua lorturiko taldeak igoko dira Euskal Ligara, bai eta igoera faseko irabazlea ere. Igoera fasean liga horietako bigarren gertaturikoak lehiatuko dira, hiru batean sistemaren arabera.

5. Ordezpenak

Partidetan, gehienez bost futbolari ordeztu ahalko dira. Gehienez zazpi balizko ordeztoko egon ahalko da, eta partida hasi baino lehen, horien izenak eta titularrenak jakin beharko ditu arbitroak.

6. Entrenatzaileak

Tituludun entrenatzailea izateko derrigortasuna gogoratzen da, gutxienez 1.maila edo oinarritzko entrenatzaile diploma / UEFA B lizentzia.

Ezinbesteko arrazoia ez bada, entrenatzailea bere taldeak edozein txapelketetan parte hartzen duen partiduetan egon behar da, dagokion aktan agertuz eta partiduan zehar bere tokia aulkian betez.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 3 -

7. Delegatuak

Delegatu bat gutxienez edukitzeko derrigortasuna gogoratzen da, bere lizentzia federatiboa tramitatuta.

Ezinbesteko arrazoia ez bada, delegatua bere taldeak edozein txapelketatan parte hartzen duen partiduetan egon behar da, dagokion aktan agertuz eta partiduan zehar bere tokia aulkian betez.

8. Arbitroak

Partida jokatzeko den lurraldeko federaziokoak izan beharko dute. Lurralde Maila Goreneko arbitroek zuzenduko dituzte partidak.

9. Diziplina Araudia

Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina Araudiak arautuko du lehiaketa, eta gerta daitezkeen gorabeherak Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina eta Apelazio batzordeek ebatziko dute.

Eta horren berri ematen da, behar duen orok jakin, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

Bilbon, 2019eko irailaren 10ean.

KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General